


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2026-07-03 / 906 ZENBAKIA / 22. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



## Jaien lekukoa hartu du Kaletxikik


San Pedro Eguna ospatu eta gero, ekitaldi ugari iragarri dituzte astebururako / 8-9



**Jexux Quesada  
urnietarra omendu  
zuten, Oianumen,  
Fleming Herri  
Eskolakoek** / 6-7

**Udagirotan: Musika,  
antzerkia, ipuin-  
kontaketak, filmak...  
Andoaingo egitaraua  
aurkeztu dute** / 14

**Sarobeko oholtzara  
igoko dira Zurriburri  
antzerki taldeko  
kideak datorren  
uztailaren 11n** / 15



# Herri eta auzo jaiak

*Aiurri.eus webgunean*

• Argazkiak • Bideoak • Albisteak

**Okm:**

batzen gaituen  
distantzia

# Bideo-sorta zabala Aiurri.eus gunean



**AIURRI.EUS**  
**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**



## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



AIURRI

## Egunean Behin, Tokikom Liga

Tokikom Ligako zazpigarren astean iritsi da: andoaindar batek irabazi du saria! Aiurri (Beterrri-Buruntza) taldeko partaideen artean, zozketa egin eta gero, irabazlea "Izaskun" andoaindarra izan da. Dagoeneko jaso du Zabalako sagardo-botila sorta, Aiurrikoen eskutik. Aurrekoetan urnietarrak, lasartearrak, adunarrak izan dira irabazleak. Oraingoan, andoaindarra.

## KOMUNITATEA

LAB SINDIKATUA

## Garraiolari andoaindar bat hil da lanean, bero kolpeak jota

56 urteko gizona Burgosen (Espainiako Estatu) hil da zamalanetan ari zela, kamioian zeraman karga ateratzen. Temperatura altuaren ondorioz shock multiorganikoa izan du. LAB, ESK, STEILAS, EHNE-Etxalde eta HIRU sindikatuek osaturiko intersindikalak elkarretaratzea deitu du Donostian, Andia kaleko 13. zenbakian kokaturiko Eusko Jaurlaritzaren eraikinaren aurrean.

Aurten, dagoeneko 36 pertsona hil dira lanean zebiltzala Euskal Herrian, eta LABek azaldu duenez, garraioaren sektorean bereziki handia izaten da istripu hilgarrien kopurua. Sindikatuak behin eta berriz

salatu du lan-baldintza prekarioak daudela ezbehar horien atzean. Alde batetik, patronalak ez ditu lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak betetzen; bestalde, administrazioaren utzikeria dago, ez baitu beharrezko baliabiderik jartzen ez neurririk hartzen enpresek prebentzio-arau horiek beteditzatzen.

Egunotako muturreko beroa aintzat hartuta, gainera, are premiazoagoa da prebentzio neurriak indartu eta zorrotz betetzen direla egiaztatzea. Izan ere, osasun arazoak izateko arriskua handitu egiten da halakoetan. Aldiz, patronalari mozkinak langileen osasunaren gainetik jartzea ahalbidetzen dioten

instituzioek halakoak zaintzeko ipintzen dituzten baliabideak, argi eta garbi, eskasegiak dira. Argi ikusi da hori aste honetan, hainbat izan baitira bero-kolpekin lotutako gertakariak sektore ezberdinetan.

Egoera hori onartezintzat jo du LABek, eta gogorarazi du bero handiaren aurrean enpresek protokoloak aktibatu behar dituztela, eta beharrezkoa bada lan-jarduera eten egin behar dela.

## GARRAIOAREN SEKTOREAN, BEREZIKI, HANDIA IZATEN DA ISTRIPIU HILGARRIEN KOPURUA



www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ezeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.  
Tel.: 943 300 732.  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa,  
Lide Ruiz Telleria.

**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetzak:**  
Garbifé Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:**  
Fer Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus

**Banatzaleak:**  
Rocio Arias (Andoain),  
Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).

**Diseinua:** Goiena / TOKIKOM.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**  
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.  
Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnieta Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURIA ETIA HEZKUNTZA POLITIKA SALA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



## ADIERAZPENA

ANDOAINGO UDALA, URNIETAKO UDALA UDAL ADIERAZPENA

# Ekainak 28, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

Andoaingo eta Urnietako Udaletan ordezkariak duten alderdi guztien artean adostutako adierazpen instituzionala:

Ekainak 28, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna Ekainaren 28a ospakizunerako, memoriarako eta aldarrikapenerako eguna da. Beste urte batez, Berdindutik LGTBIQ+ kolektiboak egindako bidea aitortu nahi dugu. Gure gizartean dagoen aniztasuna ikusgarri egin nahi dugu, eta pertsona askoren eta mugimendu sozialen ahaleginari esker lortutako eskubideak defendatu.

Baina egun honek hausnarketarako tartea ere izan behar du. Izan ere, oraindik ere badira egiteko dauden lanak. LGTBIQ+ kolektiboaz multzo gisa hitz egiten badugu ere, errealitate guztiak ez dira baldintza berberen pean bizi.

Badira oraindik ere ikusgarritasun txikiagoa duten identitateak, gorputzak eta sexuorientazioak. Askotan, gutxiago ulertzen dira eta diskriminazioa jasateko arrisku handiagoa dute. Horien artean daude pertsona transak eta intersexualak, baita emakume lesbianak eta pertsona bisexualak ere. Haien errealitateek oztupo handiagoak izaten dituzte aitortza osoa lortzeko. Egoera hori ez da gizartean bakarrik gertatzen. Inklusio handiagoa egon beharko lukeen espazio eta komunitateetan ere iraua egiten du.

Era berean, ezinbestekoa da begirada interseksionala izatea. Diskriminazioak ez du modu bakarren eragiten, eta ez die pertsona guztiei berdinean eragiten. Gurutzatzen gaituzten faktoreak

askotarikoak dira. Sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gorputzak beste egoera batzuekin uztartzen dira sarri: arrazakeriarekin, pobreziarekin, etxerik ez izatearekin, haurtzaroarekin, desgaitasunarekin, aniztasun psikikoarekin edo bestelako bazterketa egoerekin.

Horrek esan nahi du ez dela gauza bera LGTBIQ+ pertsona izatea laguntza-sare bat, egonkortasun ekonomikoa edo aitortza soziala izanda, edo prekaritatean, bakardadean edo diskriminazio anitzen erdian bizitzea. Euskadin ere bizi dira LGTBIQ+ pertsonak zaurgarritasun, desberdintasun edo ikusezintasun egoeretan.

Besteak beste, egoera administratibo irregularrean dauden migratuak, kale egoeran bizi diren pertsonak, espazio heteronormatiboetan bizi diren adinekoak edo aniztasun psikikoa duten gazte LGTBIQ+ak. Pertsona batzuek zailtasun handiagoak dituzte enplegua eskuratzeko, etxebizitza bat lortzeko edo osasun-arreta jasotzeko. Beste askok ez dute espazio segururik aurkitzen, edo ezin dute beren identitatea lasaitasunez bizi espazio publikoan. Horregatik, Harrotasunaz hitz egiten dugunean, eskubideez ere ari gara. Eta pertsona guztientzako bizi-baldintza duinez. Inork ezkutatu beharrik izango ez duen gizartea eraikitzeaz ari gara. Inork bere burua justifikatu edo beldurrez bizi beharrik izango ez duen gizartea.

Azken urteetan ikusten ari gara zenbait diskurtsoek dagoeneko lortutako eskubideak zalantzan jartzen dituztela. Era berean, espazio batzuk gero eta seguruagoak ez direla pertsona LGTBIQ+ askorentzat ere ikusten ari




Goikoplazan egin zuten agerraldia, aurreko astean. AIURRI

gara. Horren aurrean, gogorarazi behar dugu gizarteko espazio guztiak herritar guztienak direla. Eta espazio bat benetan publikoa bada, anitza izan behar du nahitaez. Kaleak, erakundeak, ikastetxeak, kultur guneak eta komunitate espazioak pertsona guztiek berdintasunean egon eta parte hartu ahal izateko lekuak izan behar dira.

Aniztasuna ez da mehatxu bat, ezta salbuespen bat ere. Gure gizartearen errealitatea da, eta denon ondarea. Gizarte irekiagoa, demokratikoagoa eta gizatiarragoa eraikitzen laguntzen digu. Horregatik da beharrezkoa oraindik ere ekainaren 28an ahotsa altzatzea. Ospatzea ere erresistentzia egitea delako. LGTBIQ+ pertsona guztien errealitateak ikusgarri egiteak garrantzitsua izaten jarraitzen duelako. Eta oraindik ere badirelako bazterrean geratzen diren ahotsak, bizipenak eta beharrak.

Berdindutik, gure konpromisoa berretsi nahi dugu LGTBIQ+ pertsona



guztiek, bereziki zaurgarritasun handieneko egoeretan bizi direnekin. Lanean jarraituko dugu

pertsona guztientzat bidezkoagoa, inklusiboagoa eta anitzagoa izango den gizartea eraikitzeko.

# Ekaitza lehertu zen igandean


Iluntzeko 20:00ak aldera, sekulako euri-jasa izan zen Gipuzkoako ipar-ekialdean eta bete-betean harrapatu zuen Andoain. Herrigunean ekaitzak eragina izan zuen hainbat eraikinetan. Zorionez, ez zen kale handirik izan



Zumea plazako garajeetan ur kopuru handia pilatu zen. Suhiltzaileen laguntza behar izan zuten ur guztia hustutzeko. AIURRI

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN


Aurreko igandean, iluntzeko 20:00ak iritsi aurretik, sekulako euri-jasa izan genuen Gipuzkoa ipar-ekialdean eta Andoain ez zen salbuespena izan. Ekaitzaldiko lehen uneetan kezka eta arreta gunea Gudarien etorbidean, Martin Ugalde kalean, Arantzibia eta Zumea plazatan zegoen. Kalteak hainbat alorretan antzematen ziren: gainezka egiten zuten ezkaratza eta garajeen sarbideak, teilatu-gainak... hainbeste ur batera pilatu zenez, ur hori guztia bideratzea arazo bikakatu zen. Kasu gehienetan suhiltzaileek ekarritako ur-bonbak arazoa bideratzeko baliagarriak izan ziren. Adituen laguntza iritsi aurretik, ordea, tokian tokiko bizilagunek prebentzioan lan handia egin zuten. Eta hori bera nabarmendu eta



Bizpahiru orduz urez gainezka egon zen garajea. Paretean agerikoa da ur mailaren arrastoa. AIURRI

txalotu zuen Andoaingo alkate Andoni Alvarezek, gertaeren jarraipen zuzena egin baitzuen Diego Barrasa zinegotziarekin batera.

Ekaitzaldiak eragina izan zuen eraikin publikoetan ere. Kiroldegian eta Ambrosia Olabiden, esaterako. Bideo ikusgarriak aurki daitezke Aiurri.eus-en.



Arantzibia plazako 5. zenbakian pilotutako euria eraikin barruan sartu zen. AIURRI



Kanaloiak Arantzibia plazako ur guztia xurgatu ezinik zeuden. AIURRI



Suhiltzaileak eta Udaltzaingoa, elkarlanean, Zumea plazan. AIURRI



Suhiltzaileek, lehenik, Martin Ugaldeko teilatutik atera zuten ura. AIURRI

# "Zuzendaritza postuan alor asko landu behar izaten dira"

**JEXUX QUESADA** AMASA-VILLABONAKO FLEMING HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIA Nafarra da sortzez eta, egun, Urnietako Lategi auzoan bizi da. Aurreko larunbat eguerdian Urnietan ibili ziren, kalez kale, ezusteko omenaldia antolatu baitzioten



Jexux Quesada, omenduaren txapela jantzita, Oianume jatetxearen kanpoaldean. AIURRI

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Urnietako bizilaguna dugu Jexux Quesada eta, larunbat eguerdian, Idiazabal kalean zebilen erosketak egiten. Ez zuen inondik inora, etxera itzultakoan, jaso behar zuen sorpresa itzarongo. Izan ere, Urnietatik kilometro gutxira, Amasa-Villabonan, Fleming Herri Eskolako zuzendaria da. Erretiroa hartzeaz dela omenaldia antolatu zioten lankideek. Urnietako eta Amasa-Villabonako musikariak hurbildu zitzaizkion Lategi auzoan bizi den etxera. Hura izan zen lehen ezustekoa. Handik oinez kalejiran abiatu ziren eta, herriko hainbat tokitan geldialdiak egin ondoren, Oianumera iritsi ziren. Bigarren ezustekoa han topatu zuen, dozenaka lagun zain zitu elako. Hots, lankideak, gizarte bizitzaren ordezkariak, gurasoak, Hezkuntza delegaritzako ordezkariak... bere jardunearan utzi duen arrasto sakonaren seinale. Oianumen egin zuten ospakizun handia eta, bazkaltzen hasi aurretik, Aiurri astekariaren galderak erantzun zituen.

**Sorpresa galanta eman dizute, Jexux.**

Bai, sorpresa handia hartu dut. Jende asko etorri da, eta egia esan, niri ez dit inork abisatu.

**Nolakoa izan da etxetik hona egin duzuen ibilbidea?**

Oso polita izan da. Batez ere, horrenbeste Flemingkide nire ondoan ikusita. Egia esan, ez dakit horrenbesteko aitortza behar edo merezi dudana, ala ez. Baina oso hunkigarria izaten ari da.

**Zerbait ondo egin izanaren seinale izango da, ezta?**

Zerbait oso ondo egin dugunaren seinale. Amasa-Villabonako Fleming Herri Eskolako zuzendaritza-taldeak eta klaustro kideek

egindako lana nabarmenduko nuke.

**Hunkituta zaude?**

Bai, oso.

**Erretiroa hartu behar al duzu orain?**

Bai, erretiroa hartu behar dut. Hau izan da nire azken ikasturtea, ekainaren 30ean amaitu dena. Azken lan egunak irailaren 1ean eta 2an dira eta, hortik aurrera, erretiroa hartuko dut.

**Ardura postuak izatetik, erretiroa hartzera. Aspertu egingo zara? Zein zaletasun dituzu?**

Nafarra naiz, eta bertako herri txiki batean nire familiaren baserria dut eta hori, bai ala bai, zaindu behar dut. Horrez gain, txirrindularitza ere oso gogoko dut. Urnietan ere baraztea dut, beraz, erretiroa hartu, bai, baina okupatuta ibiliko naiz! **Hitz gutxitan laburbildu dezakezu hainbeste urtetan Fleming Herri Eskolako zuzendaritzan eginiko ibilbidea?**

Zuzendaritzan sartzen zarenean ez duzu inoiz imajinatzen, eskola eta irakasleez gain, kudeatu behar diren beste alor guztiez. Komunitateaz ari naiz: gurasoak, Udala, Hezkuntza Saila... Testuinguru horretan gure estrategia Fleminkidetasuna asko lantzea izan da. Eskolarekiko kidetasun sentimendua landu dugu, eta uste dut lan bikaina izan dela. Azken klaustroa prestatzen ari naiz, eta azkeneko 9 urte hauetan egin duguna errepasatzen ari naiz, eta harrotasun handia sentitzen dut denon artean egin dugun lan guztiaz.

**"ZUZENDARITZAN SARTZEAN EZ DUZU IMAJINATZEN ZENBAT ALOR KUDEATU BEHAR DIREN"**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



Urnietako  
udala



Ezustean, etxeraino joan zitzaizkion bila. AIURRI



Fleming ikastetxeko ikasketa-burua eta idazkaria alboan zituela. AIURRI



Oianumen lagun ugari zain zuen, bazkarirako prest. AIURRI



Kalejiran abiatu ziren Oianumeko bidean. AIURRI



Lategi auzotik Oianumeraino kalejiran aritu zen musikari-taldea. Eneko Urdangarin ere haien artean aritu zen. AIURRI

49. zenbakia 2026ko ekaina

**IKUSBERA**  
EKLIPSEA

Ez dakit, Ez dut tutik ikusten!

Baina nora begiratu behar da?

Betaurreko eleganteak ditugu behintzat

**AIURRI**

**Harpidedun izatearen abantailak**



Maialen Lujanbio, Agin Laburu, Andoni Egaña eta Oihana Iguaran bertsolariak eta Xabier Ariznabarreta gai-jartzailea. Hainbat argazki eta bideo Aiurriren web orrian. **AIURRI**

(Gai-jartzaileak, Goikoplazan dagoen Manuel Larramendiren bustoaren irudia utzi dio Labururi; argazki-muntaia da, aurpegia ez da Larramendirena Labururena baizik).

#### Maialen Lujanbio:

Soterramendu bat aipatu da eta estutu zait arnasa, maniobra horrek pixkat baitauka diputazioan traza.

Ez al da hobe, aizu, Andoain, praktikoa eta erraza, herri guzia soterratu ta bidea ganetik pasa? (bis)

#### Agin Laburu:

Orain Andoain soterratzea aipatu dute, akabo! Hori esaten didazulako oso kezkatuta nago. Andoain herri ederra baita eta oparoa zeharo, ta hemen ezin du ezerk egon Andoain baino gorago (bis).

#### Oihana Iguaran:

Ai, Andoango auzo ta festen berri aspaldi entzunik, tiobiboak ikusten ditut maiz kotxeei erantzunik. Lazoen kontra pankarta batzuk handik sumatu ditut nik, baino ez esan hau lazo batekin ikusi nahi ez dezunik (bis) (argazki muntaia eskuetan hartuta zuzendu zaio Labururi).

#### Agin Laburu:

Andoainek ez du bizi izan hau bezalako egunik, eta ez al zaio herriari zor munduaren maitasunik? Ez esan hau lazo eder batekin ikusi nahi ez dezunik. Arruti edo Ogiberriko lazuak maite ditut nik (bis).

#### Andoni Egaña:

Andoain beti trafikoa aldetik arazo latza izan da. Buruntzan dago konponbidea egia garbi esanda. Bazkardotikan Elutxetara tunel bat jo dinbi-danba. Oso garesti ez da irtengo, lehendik dago janda (bis).

#### Agin Laburu:

Apetitua handia degu herrigintzan da egia, eta hortikan sortu da egun bizi degun komeria. Andoain, Astigarra, Urnita, trafikoa alegia. Igual problema izan liteke gure kotxe gehiegiya (bis).

# Aparteko hasiera eman diote Kaletxikiko festei bertsolariek

Agin Laburu, Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran eta Andoni Egaña bertsolariek saio gogoangarria eskaini zieten Berrozpeko kapera bete zuten bertsozaleei

#### Xabier Lasa ANDOAIN

Saio bikaina osatu zuen laukoteak, eta horretan lagungarri izan ziren Xabier Ariznabarreta gai-jartzaileak Berrozpera eramandako gaiak.

Bertsolariek beren bat-bateko dohainak erakusteko moduko egoerak planteatu zizkien Ariznabarretak: espezieak irauteko premiako duten gaitasuna, Andoango trafikoa arazoa, selektibitateko azterketa, bertsolarien estratejiak bertso saioak laburtzeko, Donostiako etxebearren heriotza, Espainiako

futbol selekzioa, komentutako bi moja eta apaiza...

Umoretik jo zuten gehienetan bertsolariek, eta gozatu ederra hartu zuten Berrozpe bete zuten bertso zaleek. Bi bertso-aldi dakarzkigu transkribatuta, segidan.

**UMORETIK JO ZUTEN MAIZ BERTSOLARIEK BERROZPEKO SAIOAN, IKUSLEEN BARREAK ERAGINEZ**

#### Premiako giza-gaitasuna bizirauteko

Lau bertsolariek, bertso bana. Gaia: "Espezieak irauteko premiako duen funtsezko gaitasuna izendatu".

#### Agin Laburu:

Azken egunak hartuko ditut bertso onena aitzakia, Euskal Herria nola egon dan berotan atxikia. Ez da berdina zaharra izan, edo malkotan txikia. Inporta duna izaten baita egokitzen jakitia.

#### Maialen Lujanbio:

Basoa edo basamortua, ordea, ez da jolasa. Ta ez da broma gaurko gizarte honek hartu duen traza. Ni kamuflatu nahi nuke, nahita jantzi disfrazta, hala pakean utzi nazaten ta disimuluan pasa.

#### Oihana Iguaran:

Bero goritan gaitasun bat da gure kasa freskatzea, eta taldeko espezie gisa elkarrentzat prestatzea. Beste laguntza eskaintzea ta besten minez kezkatzea. Eta hori baino zailago dena guk laguntza eskatzea.

#### Andoni Egaña:

Giza-andre ona izanagatik ai! espezie maitea! Ezin berezi zer den etorri eta zer den gu joatea. Batzutan bota ahobete "a" hurrena "be" esatea Bizirauteko premiako da kamaleoi izatea.

#### Andoango trafikoa arazoarentzat irtenbideak

Agin Laburu eta beste hiruak, Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran eta Andoni Egaña. Gaia: "Agin Laburu Andoango herria da; beste hirurak, berriz, herrian dagoen trafikoa arazoi irtenbidea emateko proposamenarekin datozkio".

# KALETXIKIKO JAIK 2026



Haur danborrada Berrozpeko jolaslekutik abiatuko da. AIURRI

## UZTAILAK 3

### OSTIRALA

**19:00** Kandid@ eta bere txikitxuei ongietorria. Goikoplazatik jaitziko dira kalejiran Olagain Udal Txistulari Elkartearekin eta Lebiton buruhandi eta erraldoi konpartsarekin batera, ikurriñak elkartean ipiniko dira eta zapi berdebeltza kalean jarriz jaiet hasiera emango zaie. Jarraian etxeko txikiek Lebitonekin batera gozatzeko aukera izango dute.

**19:30** Burger-afari herrikoia auzoko plazan. Gourmet hanburgesak Perurena 1974-ren eskutik.

**21:00** Joselu Anayak musika taldearekin dantzaldia.

**23:30** Gozategi musika taldearekin erromeria.

## UZTAILAK 4

### LARUNBATA

**09:00-11:00** Arrantza txapelketa Olazar parkean, Etxarri. (15 urte bitartekoentzat).

**10:30** Kaletxikiko XIX. eskupilota topaketa Goikoplazan. Topaketa amaitzeko denok txokotara!!! haur, gazte eta helduak.

**12:00** Kaletxikiko XXXI. Sagardo txapelketa. Partaideak: Gaztañaga, Mizpiradi, Eula, Altuna, Itsasburu, Alitzueta, Akarregi, Petrategi, Lizeaga, Alorrenea, Urdaira, Izeta.

**12:00** Haur parkea. Eguraldi onarekin urezko haur parkea. Sareetan eta komunikabideetan iragarriko da.

**16:30** Haur parkea.

**17:30** F.A.M.E. Colectiveren emanaldia.(Fundación Andoaindarra de Música Electrónica).

**18:30** Kaletxikiko VII. haur danborrada.

**19:00** Kaletxikiko XXXIX. danborrada nagusia. Entsaioak: Ekainak 30 eta uztailak 2 (20:00h).

**21:30** Ontza elkartearen afaria.

**23:30** Nemux DJ's diskofesta.

## UZTAILAK 5

### IGANDEA

**10:00** Diana Olagain Udal Txistulari Elkartearen eskutik.

**11:00** Meza Nagusia Berrozpeko kaperan. Hildako auzotar eta bazkideen alde. Alberto Agirre abesbatzak kantatuta.

**12:00** Soka Dantza Urki Dantza Taldearekin eta nahi duten bizilagun guztiekin. Pintxoak eta ardo txikitoak izango dira auzoan.

**12:30** Kalejira musikatua Txarangaren eskutik Goikoplazatik hasita Kaletxikiraino.

**13:15** Vermu dantzaldia Txarangaren eskutik auzoko plazan. Tangoak, pasodobleak eta rantxerak.

**14:15** XXXIV. Kaletxikitarren bazkari herrikoia. Postrearekin batera bingoa.

**16:00** Mus txapelketa Buruntza tabernan. 15:30ean izen ematea.

**17:15** Desapiyua. Sorabillako Jai Batzordea VS Kaletxikiko Jai Batzordea.

**17:30** Kalejira Txarangaren eskutik auzoan.

**19:00** Dantzaldia Alaiki musika taldearekin. Dantzaldian Kandid@ eta Txikitxuek zapi berde beltza gordeko dute eta jaiet amaiera emango zaie.

## Hitzordu ugari, asteburuan



Joselu Anaiak. AIURRI

**Eskarmentu handiko taldea** Joselu Anayak taldeak ez du aurkezpenik behar. Arabarrak Euskal Herrian barrena aritu dira, urteak joan eta urteak etorri, dantzaldien bidez auzo eta herrietako jaiak alaitzen.



Gozategi taldea, 2023an. AIURRI

**2023an bezala** Gozategi taldeak Kaletxikiko jaien hasierako gauan jo zuen. Hiru urte beranduago berriz igoko dira Kaletxikiko oholtzara. Kantu ezagun ugari, doinu alai eta dantzagarriak, horixe da Gozategiren eskaintza.



Jai Batzordeko hainbat kide, artxiboko irudian. AIURRI

**Txosna eta guzti, jaietan** Jaietako bilgunea da txosna. Ostiraletik igandera zabalik izango da eta auzotarrek kudeatzen dute. Argazkian ikus daitezenez, txosnakideak giro ederrean aritzen dira lanean.



80 urteko herritarren bazkaria egin aurretik, zapi zuria lepora eraman eta taldeko argazkia atera zuten Goikoplazan. AIURRI

# Adinekoen bazkaria

Astebete atzeratu da Sanjuanetan egin ohi den adinekoen bazkaria. Goikoplazan udal ordezkariak zapi zuri bana jarri zieten eta, Urkiko dantzarien eta Olagaingo txistulariek aureskua eskaini ostean, Ambrosia Olabide eraikinerabiatu ziren bazkaltzera

## Xabier Lasa ANDOAIN

San Juan egunaren aurretik egitekoa zen adinekoen bazkaria baina bero-sapa zela eta, San Pedro egunerako utzi zuten hitzordua. Ekitaldi horrekin amaiera eman diote aurtengo jaiari.

## Andoaingo Udalaren eskertza

Ezohiko San Juan jaiak izan dira aurtengoak, festak iraun duten egun gehienetan alarma gorria zegoen-eta iragarrita. Herritarren segurtasuna bermatzeko bertan behera utzi behar izan dira eguneko ekitaldi asko, eta aldatu beste asko; baina, egoera ikusita, jaien balorazio positiboa egin du Udalak.

Aste honetan bildu da Jai Bartzordea, eta bitartean, Marta Lasa kultura eta hezkuntza zi-

negotziak bizitakoaren eguneraketa azkarra egin nahi izan du: “alarma-egoera dela eta egoera oso delikatuoa zen, herritarren segurtasuna bermatzea izan da gure lehentasuna, eta lortu dugu; ez da aparteko larrialdirik egon festek iraun duten bitartean”. Aldaketak aldaketa, giro paregabea pasa dituzte andoaindarren jaiak: egin ahal izan diren ekitaldiek primerako harrera izan dute.

Udalak esker hitzak izan ditu herritarrentzat, festak jasan dituzten aldaketen aurrean oso modu ulerkorrean erantzun dutelako. Herritarrez gain, herriko elkartei ere eskertza mezua zabaldu die Lasak Udalaren izenean: “egunez egun, herriko elkarteekin elkarlan estuan har-

tu ditugu erabaki guztiak, eta haien laguntza eta ulermena bihotzez eskertu nahi dugu”. Bestalde, festetako egun nagusietarako eraso matxisten aurreko arreta telefonoa jarri du eskura Udalak. Zorionez ez da deirik jaso, eta “hori oso berri ona da” Lasaren hitzetan. Hala ere, Udalak jarraituko du oso adi gai honen inguruan lanean.

Elkar zainduz pasa ditugu aurtengo San Juan jaiak, “zorianak, beraz, herritar guztiak”.

**“EGUNEZ EGUN,  
ELKARTEEKIN  
ELKARLANEAN HARTU  
DITUGU ERABAKI  
GUZTIAK”**



Urkiko dantzariak omenezko agurra dantzatu zieten. AIURRI



Olagain Udal Txistulari elkarteko kideak eta Urkiko dantzariak. AIURRI



Hiru finalak jokatu zituzten pilotariak Andoni Alvarez alkatearekin eta antolatzaileekin. AIURRI

#### Xabier Lasa ANDOAIN

Ezaugarri bereziak ditu Sorabillako pilotalekuak eta, gainera, ez dago estalita. Euria eginez gero, beraz, bertan behera utzi behar izaten dira partidak. Igande arratsaldean antolatzaileek zortea aldeko izan zuten, sari banaketa ekitaldia amaitu eta berehala lehertu baitzen ekaitza. Dena amaitu zenean, eta ez lehenago. Beraz, pozik egon daitezke. Maiatzean eta ekainean giro polita sortu da Sorabillan, Iturzaeta pala txapelketaren baitan.

# Finalak, ekaitza lehertu aurretik

Sorabillako pilotalekuan ateri zela jokatu ziren Iturzaeta memorialeko finalak. Azken partidak hari batetik zintzilik izan ziren, baina, zorionez, ekaitza sari banaketa amaitu eta berehala lehertu zen

## Iturzaeta pala txapelketako emaitzak

Maiatzean hasita, ligaxkan, dozenaka bikote lehiatu dira Sorabillako pilotalekuan. Igande arratsaldean jokatu ziren finalak eta honako hauek izan ziren emaitzak:

### Neskak

**25** Naiara Mitxelena  
Eneritz Mitxelena  
**13** June Urain  
Amaia Gonzalez

### Herrikoa

**25** Asier Gutierrez  
Martxel Lekuona  
**10** Ion Beloki  
Antton Arruti

### Irekoa

**25** Ander Loidi  
Julen Loidi  
**16** Xabier Alkorta  
Oier Belauntzarán  
(Alkortak mina hartuta dagoen Iñaki Lopez de Munain ordezkatu zuen).

### Argazki-bilduma, ikusgai

Finalen eta sari-banaketa ekitaldiaren argazkiak eta bideoa ikusgai daude Aiurri.eus gunean.



Asier Gutierrez. Atzean, Lekuona (urdinez) eta Arruti (gorriz). AIURRI



Nesketa mitxelenatarrak nagusitu ziren. Urdinak, hain zuzen. AIURRI



Alkorta eta Belauntza, urdinez. Atzean, adi, Loidi. AIURRI



San Juan jaiak eta egun haietako olatu-kolpea igarota jokatu ziren finalak. **AIURRI**



Belauntzaran sakearekin, Alkorta eta Salbador adi. **AIURRI**



Uria eta Salbador bikotea. Lehenak Lopez de Munain ordezkatu zuen. **AIURRI**

# Kontzejupekoak baditu irabazleak

Xabier Alkorta-Oier Belauntzaran bikoteak jantzi zuen txapela, Beñat Salbador-Eneko Uriari 22-11 irabazi eta gero. Hirugarren postua Iker Ramirez-Julen Urruzola bikoteak lortu du, Ibai Miguel-Eneko Beloki 22-21 mendean hartu eta gero



Kontzejupekoak arreta piztu ohi du zaletuen artean. **AIURRI**

## Ansarentzat txapel berria

Ansa II-Zubiri bikoteak txapela lortu zuen Bereziartua sagardotegiarentzat, Erremontari txapelketako finalean. Aurrean izan zituzten, Oialume Zar defendatuz, Aldabe eta Barrenetxea IV. Hiru set behar izan ziren eta azken bietan Ansa gailendu zen galdutako lehen seta irauli eta finala irabazteko (12-15, 15-12 eta 8-5). Galarretara jendetza hurbildu zen.




ORIAMENDI



andoa**INDARRA**  
euskaraz

## Triku Harri lasterketa, Onddolar eta Leitzaran bailaran barrena

Aurreko asteburuan egin zen mendi lasterketa bikoitza, 12 eta 24 kilometroetakoa



Cris Matilla eta Txetxu Marin andoaindarrak, helmugara iristen. AIURRI

### Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko asteburuan Onddolar eta Leitzaran bailaran barrena Triku Harri mendi lasterketaren edizio berria egin zen. Amasa-Villabonako plazatik abiatu eta iritsi zen lasterketa. 12K laster-

ketak 12 km-ko ibilbidea eta 413 m-ko desnibel positiboa ditu. Eta 24K- delakoak, berriz, 24 km-ko ibilbidea eta 1.289 m-ko desnibel positiboa. Probaren argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus gunean.

## Urnieta KE eta Euskaldunako bosna talde, Donosti Cup-en

Donosti Cup 2026 txapelketak marka berria ezarri du: 31 herrialdeko 912 taldek hartuko dute parte 34. edizioan. Urnieta KE eta Euskalduna klubenez izenean bosna talde lehiatuko dira, datorren astean hasita. Guztira, 15.000 jokalarik baino gehiagok hartu dute parte. Aurten 8 herrialde berri estreinatuko dira Donostian: Angola, Hong Kong, Letonia, Mongolia, Malaysia, Polonia, Puerto Rico eta Uruguai. Guztira 94 herrialdek hartu dute parte Donosti Cupen 1. edizioaz geroztik. Ordezkaritza duten gainerako herrialdeak hauek dira: Australia, Kanada, Txile, Txina, Arabiar Emirerri Batuak, Espainia, Estatu Batuak, Etiopia, Frantzia, Filipinak, Ghana, Honduras, Italia, Irlanda, Islandia, Japonia, Mexiko, Herbehereak, Palestina, Portugal, Erresuma Batua eta Venezuela. Euskal Herrikoek gain, Andaluzia, Aragoi, Kanariak, Valentzia edota Murtzia erkidegoetakoak izango dira.




Aitaren eta taldeko arduradunen ondoan, lasterketa amaitu berritan. REDBULL

## Bull Rookies Cup txapelketa irabazteko garaipen baliotsua

Assenen zirrarez beteriko lasterketan garaipena lortu zuen Beñat Fernandez andoaindarrak

### Erredakzioa ANDOAIN

Red Bull Rookies Cup txapelketan garaipen ikusgarria lortu du, asteburuan, Beñat Fernandez andoaindarrak. Lortutako garaipenarekin –eta erakusten ari den erregularitasunari esker– txapelketa irabazteko aukera handiak ditu. Izan ere, sailkapenean aldea ateratzen ari da: Une honetan lehenengoa da 148 punturekin. Eta atzetik datozkio Ogiwara japoniarra (93 puntu) eta Bujosa espainiarra (69 puntu). Asseneko zirrara bereziko lasterketa izan zen, bereziki, azken bihurtuneetan. Beste behin ere, adi ibili zen andoaindarrak eta sekulako garaipena lortu zuten. Aiurri.eus gunean ikusgai dago lasterketa. “Asteburu osoan oso ondo sendo aritu gara eta



Beñat Fernandez, Assenen. REDBULL

oso pozik nago lortutakoarekin”, zioen Fernandezek helmugan. Alemaniako Sachsenringen da hurrengo lasterketa, uztailearen 10etik 12ra.



ANDOAINGO

## Kadete mailakoak, Bizkaian

Aurreko asteburuan Andoaingo Txirrindulari Eskolako kadete mailako kideak Bizkaian izan dira, hiru egunez jarraian egin diren lasterketetan. Txuma memorialaren baitan antolatu dituzte kadete mailako hiru lasterketak. Honako hauek jantzi zuten Andoaingo elastikoa: Liher

Albizu, Ugaitz Tejeria, Xabat Martin eta Unax Guisado. Lehen egunean, Leioa aldean, 56 kilometroko lasterketetan parte hartu zuten. Biharamunean, Berangon, 65 km-koa. Eta, azkenik, Erandiokoa, 58 km-koa. Esperientzia bikaina.



Beñat Fernandez, Assenen, helmuga lehen postuan zeharkatu eta berehala. REDBULL

## DATOZEN HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ANTZERKIA

## URNIETA Zurriburri

Urnietako antzerki tailerraren erakustaldia. "Terror y miseria en el primer franquismo" obra antzeztuko dute.

19:00, Sarobe.

Uztailak 11, larunbata.

## JAIK

## ANDOAIN Kaletxikiko jaiak

Asteburu osoan, ekitaldi ugari. Egitaraua eta jaiaren xehetasunak, 8-9. orrialdeetan.

Kaletxiki.

Uztailak 3, 4 eta 5.

## ANDOAIN Karrikako jaiak

Uztailak 10, ostirala:

19:30 Txupinazoa.

20:30 Bokata-afaria.

23:00 Kresala taldearekin dantzaldia.

Uztailak 11, larunbata:

11:30 Puzgarriak eta apar-festa.

14:00 Makarroi-jatea eta bingoa.

16:30 Puzgarriak.

18:30 Dantza-tailerra.

22:30 Bang Royale taldea. DJ Louky.

Uztailak 12, igandea:

11:30 Meza, Sorabillan.

12:00 Toka txapelketa.

12:30 Sagardo dastaketa.

16:00 Karrikako mus txapelketa.

19:00 Got Talent Karrika.

19:45 Play-back saioa.

21:00 DJ Donoso.

23:30 Azken traka eta su-artifizialak.

Karrika auzoa.

Uztailak 10, 11 eta 12.

## ANDOAIN Etxeberrietako jaiak

laz bi egun izan ziren. Aurten, lau.

Etxeberrieta.

Uztailak 30-Abuztuak 2.

## ANDOAIN Sanestebanak

Beranduxeago datoz aurtengo jaiak.

Goiburu.

Uztailak 31-Abuztuak 3, 7, 8 eta 9.

## ANDOAIN Sanrokeak

Aurten, asteburuan dira jaiak.

Buruntza.

Abuztuak 15 eta 16.

## ANDOAIN Sorabillako jaiak

Abuztuko azken asteburuan.

Abuztuak 28, 29, 30 eta irailak 8.



"Joxepa Tronpeta istorioz beteta", Ixabel Agirresaroberen eskutik. AGIRRESAROBE

## ANDOAIN Udagirotako 2026

Zinema, antzerkia, musika, zirkua... kultur jarduera ugari izango da uda honetan, Andoaingo hainbat tokitan. Egitarau osoa, jarraian:

## ZINEMA KALEAN

Kayara. Inka gerraria

Uztailak 2, osteguna.

19:30, Goikoplaza.

## Minecraft film bat

Uztailak 9, osteguna.

19:30, Etxeberrieta plaza.

## Como entrenar a tu dragon

Uztailak 16, osteguna.

19:30, Goikoplaza.

## KONTZERTUAK

Joselu anaiak

Uztailak 3, ostirala.

21:00, Kaletxiki.

## Gozategi

Uztailak 3, ostirala.

23:30, Kaletxiki.

## Kresala taldea

Uztailak 10, ostirala.

22:30, Karrika.

## Gartxot Unsain, Garazi Esnaola

Uztailak 18, larunbata.

18:30, Otieta parkea.

## Xsakara

Uztailak 30, osteguna.

22:30, Etxeberrieta plaza.

## Los Zopilotes Txirriaos

Abuztuak 29, larunbata.

Sorabilla.

## IPUINGIRO

Sagarra jo!

Kontalari2, 2-7 urte.

Uztailak 7, asteartea.

18:00, Sorabilla.

## Joxepa Tronpeta istorioz beteta

Ixabel Agirresarobe.

4 urtetik aurrera.

Uztailak 14, asteartea.

18:00, Leizaur parkea.

## Ispiluak

Dorleta Kortazar.

Uztailak 21, asteartea.

19:00, Leizaur parkea.

## IKUSZIRKUS

Anonima

Mugimendu-zirkua, Vaiven Circo

(Granada, Andaluzia).

Irailak 18, ostirala.

19:30, Bastero Kulturguneko auditorioa.

## Txondor plaza

Kale antzerkia, Argimalutak.

Irailak 26, larunbata.

18:30, Goikoplazan.

## HAUR IKUSKIZUNA

"Zintzilik", Potx Magoa

Abuztuak 8, larunbata.

12:00, Goiburu auzoa.

## BAKARRIZKETA

"Simpol", Maria Cruickshank

Abuztuak 15, larunbata.

19:30 Buruntza auzoa.

Egitarau osoa etxe guztietan banatu du Andoaingo Udalak.

URNIETAKO 1.

FORMATU  
TXIKIKO  
ARTE ESZENIKOEN  
LEHIAKETA

- 2026 -



ANTZERKIA



DANTZA



PERFORMANCE



ZIRKO ARTEAK

ETA BESTE  
DIZIPLINA BATZUK

ESPASIO TXIKIAK,  
IPUIN HANDIAK

ANTZERKIA

ZURRIBURRI  
antzerki  
taldea

kultur erakunde



## KONTAKTUA

zurriburriantzerkitaldea@gmail.com

Oinarrizko eta Sartzak



Izena eman



Informazio Orokorra



Egutegia



# Urnieta antzerki tailerraren berriena

Esther Modia, Mikel Rodenas, Pilar Brandariz, Julio Nogales, Koro Berasategi, Xabi Odriozola eta Mikel Agirregomezkorta Sarobeko oholza gainera igoko dira uztailaren 11n, "Terror y miseria en el primer franquismo" obra antzeztera

**Lide Ruiz Telleria** URNIETA  
Mikel Agirregomezkorta zuzendariak, aktoreez gain, hainbat lankide izan ditu alboan: Pablo Lusarreta, argiztapenean, Ana Moreno, kanpo begiradan; eta, Maribel Tardio, ekoizpenean. Zurriburrik George Santayana filosofo eta idazlearen aipua darabil, aski argigarria dena: "Beren iragana ahazten duten herriek hura errepikatzen kondenatuta daude".

Honaino iritsita, memoria historikoa ardatz duen antzez-lana izango da. Sinopsian honako hitzokin jasota dago antze-lanaren muina: "Egungo garaiak kontuan hartuta, ez da kasualitatea Zurriburri antzerki taldeak

Jose Sanchis Sinisterra antzerkigile valentziarraren *Terror y miseria en el primer franquismo* obra antzeztea aukeratu izana. Lan hori bederatzi pieza txikik osatzen dute. Horietatik lau antzeztuko ditugu: *Primavera 39*, *El topo*, *Intimidación* eta *El sudario de tiza*. Espainiako Gerra Zibilaren ondorioetatik bizirik ateratzen diren eguneroko bizitza islatzen dute: bizitza-galera, erbestea, gosea, kartzela, maisu-maistren garbiketa, ustelkeria, etab. Egilearen eta obraren helburua memoria historikoa aldarrikatzea da, eta batzuek sinetsarazi nahi diguten ikuspegi interesatuari uko egitea".

Sarrera dohainik da.



Zurriburri, artxiboko irudian. ZURRIBURRI

**Andoain BAT**

**Agenda bateratua:**  
Udaleko eta herriko ekintzen topagunea.


Andoaingo Udalak "ANDOAIN BAT" kaleratuko du, herrian antolatzen diren jarduerak bilduko dituen **agenda bateratua**. Proiektuak hiru dimentsio izango ditu: aplikazioa, webgunea eta eskuorria.

- **Mugikorrerako app-a**  
Ekitaldi guztien agenda eta gehiago. Eskaneatu QR kodea aplikazioa deskargatzeko.
- **Webgunea**  
Kontsultatu guztia [andoainbat.eus](http://andoainbat.eus) webgunean, beti eguneratuta.
- **Eskuorria**  
Hilabeteko programa paperean. Herriko gune hauetan eskuragarri egongo da: Ataria, Ambrosia Olabide, Urigain, Arrate, Bastero Kulturgunea, Liburutegia, Gazte Lokala, Ludoteka eta Allurralde.

Android    iOS

**Mendira,  
hondartzara,  
festara...**

**Uda honetan ere  
zurekin eramango  
gaituzu**



---

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia